

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Amurrioko Udaleko alkate andreak 2016ko abuztuaren 19an emandako Dekretuaren laburpena; horren bidez, laguntza ekonomikoak deitzen dira, Amurrioko udal-mugaratean enpresa txikiak ezartzen laguntzeko**

BDNS (identificador): 317122

Bat etorritik Dirulaguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), argitara ematen da deialdiaren laburpena; deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu ahal da (<http://www.pap.minhp.gob.es/bdnstrans/index>):

#### **Lehenengoa. Onuradunak:**

Merkataritza-jarduera duten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte: jardueraren titularrak Amurrion gutxienez bi urteko antzinasunarekin erroldatuta egotea eta JEZearen eta Gizarte Segurantzaren 2015eko azaroaren 21aren ondoren alta emanda egotea.

Jakinarazten da Lanbideak, enpresa-jarduera hasita ostean, finkatzeko laguntza behar duten pertsonen emandako laguntzak ez direla bateragarriak laguntza honekin.

#### **Bigarrena. Helburua:**

Deialdi honen helburua da udalerrian enpresa txikiak ezartzea sustatzeko laguntza ekonomikoak arautzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:**

Amurrioko Udaleko Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 27ko erabakiaren bidez onetsi zituen, eta eduki osoa urte bereko ekainaren 17ko 69 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa:**

Deialdi honetarako zuzkidura 20.000 eurokoa da.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea:**

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta 2016ko azaroaren 20ra arte.

Amurrion, 2016ko abuztuaren 19an

*Alkatea*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**